



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 14koa. Horren bidez, Osakidetzari gomendatzen zaio neurriak hartzeko ondare erantzukizuneko espediente bat berariaz ebazteko.

Aurrekariak

1. Hiritar honek kexa bat aurkeztu zuen, ondare erantzukizuneko eskaera bat ez zelako berariaz ebatzi.

2009ko urriaren 22an, Osakidetzak urriaren 16ko 4.845/2009 ebazpena jakinarazi zion, espediente egokia hasteari buruzkoa. Komunikazioan ebaluazio ekonomikoa eskatu zitzaion. 2009ko azaroaren 19an izapidetu zuen.

Kexaren arrazoia zen ez zuela jakin gerorako jarduketan berri.

2. 2010eko irailaren 29ko idazkiaren bidez, erakunde horri informazioa eskatu genion, interesdunaren ondare erantzukizuneko espedientea izapidetzea zela-eta.

2010eko azaroaren 8an erantzun zuen Osakidetzak. Azaldu zigun prozedura ez zela bukatutzat eman, baizik eta irekita zegoela, perituak txosten medikoa noiz emateko zain, espedientea ebatzi baino lehen. Atzerapenaren arrazoia zen lanak pilatu zirela. Espedientearen amaiera, aldekoa edo kontrakoa, bizpahiru hilabeteren buruan izatea espero zuten. Berariazko ebazpena emateko asmoa zeukaten, erabakiaren funtsa azalduz.

3. Erantzun horren berri eman genion interesdunari, baina apirilaren 7an Osakidetzarekin hitz egin genuen berriro ere, interesdunak jakinarazi baitzigun artean ez zuela erantzunik jaso.

Interesdunak gero berriro ere Arartekoarengana jo zuen, erantzunik ez zeukala esateko.

Ebazpen hau egiteko unean, ez dugu jaso irailaren 21ean egin genuen informazio eskaeraren erantzunik.





Gogoetak

1. Erantzun falta hori dela-eta, kexa hau Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoan eta Administrazio Publikoen Prozeduren Araubidea ondare erantzukizunean onetsi zuen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan xedatutakoan kokatu behar dugu. Aipatutako legearen 42. artikuluan ezarritakoa gogorarazi behar dugu, interesdunek egiten dituzten eskaerei buruz berariazko ebazpena eman beharri dagokionez.

Eusko Legebiltzarrari 2010ean eskaini genion txostenean, azaldu genuen arrazoi horrengatik jasotako kexek berandutza zegoela erakusten zutela, baina gerora jasotako datuek erakusten zutela arazoa konpontzeko neurriak hartu zirela: izan ere, kexak sorrarazi dituzten zenbait espediente gero berriro aktibatu ziren.

2. Aurrekoa azalduta, esan behar dugu jasotzen ditugun kexak ez direla beti ikuspegi orokorra eskaintzen duen erradiografia. Hori horrela izateak ezin digu galarazi kexa sorrarazten duten egoera zehatzak kontuan izatea. Kexak funtsa badauka, bideratu egin behar da.

Beste espediente batzuetan, ondare erantzukizuneko eskaeretan berandutzak eta berariazko erantzun ezak kexak sorrarazi dituztenetan, jakin dugu bat gatzela Osakidetzako Zuzendaritza Orokorra eta Arartekoa: ez da komenigarria ezta bidezkoa ere pentsatzea espediente hauek ebatzita daudela administrazioaren isilbide negatiboa den fikzio juridikoan oinarrituta; izan ere, hori fikzio bat baino ez da, administrazioaren jardun ezaren aurrean, eta ez du esan nahi administrazio prozedura guztietan berariazko ebazpena eman behar ez denik.

Horrenbestez, Osakidetzako Zuzendaritza Orokorrak adierazi du berariazko ebazpena ez dela aurkako erabakietarako betebeharrak formal hutsa; baizik eta berari esker erabakiaren zioak edo argudioak jakin daitezkeela.

30/1992 Legearen 89.4 artikulua aurreikusten du administrazio publikoek inola ere ezin diotela ebazpena emateari uko egin isilbidearen aitzakiarekin. Azaldu dugunaren arabera, aurreikuspen hori ez da auzitan jarri.





Hori horrela izanik, berandutzearen arazoiei buruz egin genuen azken informazio eskaerak, irailaren 21ekoak, ez du erantzunik jaso. Azaldu dugunez, aurkezten diren erreklamazioei berariazko erantzuna eman behar zaiela uste dugu denok. Beraz, horretan ados bagaude, arazoizkoa da pentsatzea espedienteak ez izapidetzearen arazoia espediente asko daudela izatea. Espedienteei, gaiaren konplexutasunaren arabera, bitarteko nahikoak esleitzea beharrezkoa da, haien izapidetzea zerbitzu publikoei exijitzen zaien eraginkortasun printzipioaren arabera egin ahal izateko.

3. Aurrekoa bezain garrantzitsua da isilbide honek emango duen itxura eskasa jasotako osasun zerbitzuarekin ados ez dagoelako erreklamazioa egiten duen pertsonaren aurrean, erreklamazioa egiteaz gain kalte-ordain eskaerari ez bazaio erantzuten eta, horregatik, administrazioak bere eskaerari buruz duen iritzia jakiten ez badu.

Ondare erantzukizuneko espedienteak antolaketan agindutako baldintzetan izapidetzea, aztertzea eta administrazio bidean ebatzea, legezko agindua izateaz gain (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua), erabiltzaileek osasun sistema publikoaz duten irudian eragingarri izan daiteke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Arartekoaren erakundea sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

49/2011 GOMENDIOA, abenduaren 14koa, Osakidetzari egina

Beharrezkoak diren izapideak egin ondoren, pertsona honek sustatu duen ondare erantzukizuneko espedienteari bultzada ematea, 30/1992 Legearen 89.4 artikuluko legezko agindua betez.

